

ESANAK

KOFI ANNAN

(Nazio Batuen Erakundeko idazkaria)

«Goi bilera ez da porrota izan»

LURRAREN LAGUNAK

(Erakunde ekologista)

«Goi bileraren emaitzak saldukeria dira milioika lagun pobre eta ahulentzat»

HUGO CHAVEZ

(Venezuelako presidentea)

«Askoz ere gehiago lortzea nahiko genuke, espiritu autokritikoaz ari naiz, guztiz»

besteko neurri zorrotzik ez due-
la ematen azaldu zuten, arrunt
kexati.

Era berean mintzatu zen Ve-
nezuelako presidentea ere,
Hugo Chavez. «Askoz ere
gehiago lortzea nahiko genuke,
eta espiritu autokritikoaz ari
naiz, guztiz. Estatu burua naiz,
eta konponbideak bilatzeko
gaudela iruditzen zait», azaldu
zuen. Politikari zenbaitek azal-
dutako jarrera kritikatu zuen.
Zorrotz. «Hitzaldi bat irakurtze-
ra besterik ez gentozela zirui-
dien, egiteko bat gainerik kent-
zera, eta bitartean jendea go-
sez hiltzen ari da».

Atzo goi bileraren amaiera
gisa *Johannesburgoko deklara-
zioa* onartu zuten agintarie-
k. Hegoafrikak proposatu zuen
abiapuntuko testua, 69 puntu-
rekin. Azkenean 34 baino ez
dira onartu. Mundu hobe-
a lortzeko urratsak egiteko konpro-
misoa azaldu dute bertan agin-
tariek, hitz dotoreekin.

Energia iturri berriztagarrien alde elkartu egin dira hainbat herrialde

Europako Batasunarekin batera beste 20 estatuk ekintza planetik «haratago» jo nahi dute

Agentziak | JOHANNESBURGO

Zenbait herrialdek energia iturri berriztagarrien alde tin-
ko egin nahi izan dute goi bile-
ran, helburu zehatz batekin,
gainera. 2010. urterako mun-
duan erabiltzen den energia-
ren %10 energia iturri horien
bidez lortua izatea nahi zuten.
Paper zuriaren gainean jarri
nahi zuten jomuga hori, agin-
tariek onartu duten ekintza
planean. Ez dute lortu, ordea.
Ameriketako Estatu Batuek,
petrolioia ekoizten dirutza
handia lortzen duten hainbat
herrialderekin batera, horren
kontra egin dute, eta planean
energia iturrien alde orokor-
keriak baino ez ditu jartzen,
deus zehatzik ez. Horregatik,
atzo Europako Batasunak,
beste hainbat herrialderekin
batera —20tik gora— energia
iturri horien aldeko boronda-
tea azaldu zuen.

Aditzera eman dutenez
ekintzarako borondatea da.
Ildo horretan, idatzi bat aur-
keztu zuten atzo elkarlanean.
Energia iturri berriztagarrien
aldeko urratsak egiteko asmo
tinkoa azaldu zuten bertan,
«Johannesburgoko goi bile-
ran adostutako akordiotik ha-
ratago». Energia iturri horien
erabilera sustatzeko asmo eta
epe zehatzak ezarriko dituzte-
la azaldu dute, eta horien ara-
bera jardungo dutela lanean.

Ingurumenaren alde, pobrezia- ren kontra

Testuaren sinatzaileek azaldu
dutenez energia iturri berriz-
tagarriek bi eratako onurak



DARIO LOPEZ MILLS / AP PHOTO

Ekologista bat atzo protestan, Johannesburgon.

ekar ditzakete garapen jasan-
garriaren alde. Batetik, ingu-
rumenaren deusezte murriz-
tuko dute. Bestetik, pobrezia-
ren kontra egiten lagun
dezakete, eskuratzen erraza-
goa baita energia iturri horien

emaitza, baita herrialde be-
hartsuetako behartsuenentzat
ere.

Eguzkiaren energia, energia
eolikoa, hidroelektrikoa —es-
kala txikian— zein nekazal
jardueretako biomasatik lor-


tutako energia sustatu nahi di-
tuzte la azaldu dute. Bakoitza
bere neurrian. Idatziaren atze-
an Europako Batasunarekin
batera Hungaria, Errumania,
Polonia, Eslovakia, Malta,
Suitza, Turkia eta beste zen-
bait herrialde daude. «Elkarla-
nean jardungo dugu», azaldu
dute.

Litekeena da beren jardune-
an Latinoamerikako herrial-
deen babesaren aurkitzea.
Energia berriztagarrien alde
jardun dute goi bilera osoan,
eta ekintza planean ezarri nahi
zen jomuga, esaterako, Brasil-
go Gobernuak proposatu
zen.

Greenpeace: «Energia berriztagarrien LPEE»

Greenpeace erakunde ekolo-
gistak harrera ona egin zion
atzo aipatu idatziari. Herrial-
deok elkarlanean jarduteko
borondatea oso garrantzitsua
dela azaldu zuen. «Hein bate-
an energia berriztagarrien
LPEEa (Lurralde Petrolio Es-
portatzaileen Erakundea)
dira».

Idatzian herrialdeek azaldu
dutenez etorkizun hurbilerako
zeinbat asmo eta xede zehaz-
tuta dituzte dagoeneko. «Hel-
buru jakin batzuk ezarri ditugu
dagoeneko, eta beste zenbait
zehaztuko ditugu...», azaldu
dute. Era horretan gura duten
herrialde orori beren ekime-
nean parte hartzeko deia egin
diote. Eta batera ari ez baldin
badira ere, gutxienez energia
berriztagarrien alde egiteko
deia egin diote. Geroaren ize-
nean.



ADI

ETXE APAINKETA

Estiloaren itzala piztuz

- Berrikuntzak: estiloaren eskifaia
- Elkarriketa: Izaskun Olabarria Gurea altzari dendako arduraduna
- Erreportaia: Arantzadi Elkartek, Gipuzkoako

Foru Aldundiak eta Ataungo Udalak elkarlanean egindako erakusketa

- Diseinua: espazio txikien diseinua Miren Larrañagaren eskutik
- Aholkuak

Egunkaria